



Geink

Geopolitika
Eremuko Ikerlanen
Nazioarteko
Kongresua

CALL FOR PAPERS

Geopolitika eta Eremuko Ikerlanen I. Nazioarteko Kongresua:

“Imanorratzak iparraldea adierazten ez duenean”

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

Bilbon, 2024ko irailak 11-13

AURKEZPENA

Geopolitika eta Eremuko Ikerlanen Nazioarteko Kongresua (GEINK) Nazioarteko Politika, Geopolitika eta Eremuko Ikerlanen ikerketari eta analisiari buruzko truke akademiko eta sozialerako gune bat da. Lehen edizio honetan, hegemonia globalaren aldeko borrokan gertatzen ari diren aldaketetan jarriko du arreta. Mendebaldearen gainbeheraren aurrean Hegoalde Global heterogeneoaren indartzea nazioartean, arlo ekonomikoan eta politikoan gero eta emantzipatuagoa agertuz. Hortik dator **“Imanorratzak iparraldea adierazten ez duenean”** izenburua. Errealitate hori aztertu eta eztabaidatu ahal izango dugu Bilbon, 2024ko irailaren 11, 12 eta 13an egongo diren lantalde, hitzaldi eta bestelako jarduera paralelotan. Antolatzaileak: **Politika eta Administrazio Zientzia Saila, Geopolitikaz Ikerketa taldea eta Parte Hartuz Ikerketa talde kontsolidatua.**

BATZORDE ZIENTIFIKOA

Mahaiburutzak: Dr. Asier Blas Mendoza (UPV/EHU)

Kideak

Dra. Arantxa Tirado Sánchez (UAB, Catalunya)

Dr. Borja Macías Urbano (UPV/EHU)

Dr. Branislav Radeljić (UAEU, United Arab Emirates)

Dr. Eneko Compains Silva (UPV/EHU)

Dra. Itziar Mujika Chao (UPV/EHU)

Dra. Iratxe Perea Ozerin (UPV/EHU)

Dr. Juan Agulló (UNILA, Brasil)

Dra. Laura Pérez Rastrilla (UCM, Madrid)

Dr. Luis Miguel Uharte Pozas (UPV/EHU)

Dra. Mar Gijón Mendigutía (UPV/EHU)

Dra. María José Rodríguez Rejas (UACM, México)

Dr. Martin Artola Korta (TSU, Georgia)

Dra. Mónica Bruckmann (UFRJ, Brasil)

Dr. Pablo Sapag Muñoz de la Peña (UCM, Madrid)

Dr. Rubén Ruiz Ramas (UNED, Aragón)

Dra. Silvina Romano (CONICET, Argentina)

CALL FOR PAPERS

Ponentziak aurkezteko deialdia **2024ko urtarrilaren 22an irekiko da eta 2024ko apirilaren 29an itxiko da.**

Ponentzietarako proposamenak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aurkeztu daitezke.

Kongresuaren dinamika presentziala izango da, hala ere, proposamen presentzialek lantaldeek ponentzien aurkezpenetarako esleiturik duten espazioa agortu ezean, online aurkezteko ponentziak onartu ahal izango dira.

Proposamenek honako hau izan behar dute: ponentziaren izenburua, egile(ar)en izen-abizenak, jatorrizko erakundea (adskripzio akademikoa, organizazioa edo independentea den), helbide elektronikoa, ponentziaren laburpena (gehienez ere 800 karaktere, espazioak barne hartuta) eta bost hitz gako gehienez, egileen ohar biografikoa (gehienez ere 350 karaktere, espazioak barne hartuta), zein lantaldetan sartu nahi den, eta, azkenik, ponentzia presentzialki edo online aurkeztu nahi den. **INPRIMAKIA:** <https://kongresua.geink.eus/>

Lantaldeetako koordinatzaileen proposamenak aintzat hartuta, Hautaketa Batzordeak izango du azken erabakia ponentziak onartzeko orduan. Hartutako erabakiak **2024ko maiatzaren 6an jakinaraziko dira.** Hautaketa Batzordeak eta koordinatzaileek aukera izango dute ponentziak beste lantalde batzuetan kokatzeko, antolakuntzaren beharrianak betetzeko edota gaien arteko lotura egokitzeke.

2024ko uztailaren 15ean kongresuan izena emateko epea amaituko da behin betiko programan egon nahi duten onartutako hizlariantzat.

2024ko irailaren 2an ponentzien azken testuak bidaltzeko epea amaituko da. Azken testu horiek bete beharreko baldintzak hauek dira: 2.500 eta 8.000 hitz arteko luzera; ponentziaren izenburua eta egile(ar)en izen-abizenak; jatorrizko erakundea (adskripzio akademikoa, organizazioa edo independentea den); helbide elektronikoa; ponentziaren laburpena eta bost hitz gako gehienez; egileen ohar biografikoak (gehienez ere 350 karaktere, espazioak barne hartuz).

Zalantza edo argibiderik behar izanez gero, idatzi helbide elektronikoa honetara: info@geink.eus

LAN-TALDEAK

LT 1: Teoriak eta ideologiak Nazioarteko Politikan. Koordinazioa: Irene Zugasti Hervás.

Lan-talde honek geopolitikaren definizioei buruz eta horren hurbilketa epistemologikoei buruz eztabaidatuko du. Ongietorriak izango dira, besteak beste, geopolitikaren eta ideologia, filosofia, zibilizazio-ikuskera eta diziplina akademikoen arteko harremanari buruzko ponentziak, eta espazioaren kontzeptualizazioari eta gizarte-emantzipazioari buruzkoak (klase-borroka, feminismoak, ekologismoak, subiranismoak, etab.).

LT 2: Aldaketak eta borrokak munduko ordena politiko eta ekonomikoan. Koordinazioa: Asier Blas Mendoza eta Borja Macías Urbano.

Lan-talde honetan, ongi etorriak izango dira nazioarteko politikan eta ekonomian izan diren aldaketa eta borroka garrantzitsuen berri ematen duten diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak, besteak beste, nazioarteko aktore eta aliatu berrien goraldia, eragile desberdinen lerrotatze politiko eta ekonomiko berriak, Hegoalde Globalaren sendotzea edota oreka ekonomiko eta politikoan eman diren higadurak.

LT 3: Bakearen eta gatazken konponbiderako ikerketak. Koordinazioa: Itziar Mujika Chao.

Lan-talde honetan, nazioarte, estatu edo eskualde mailako gatazka politikoen konponbide baketsua jorratzen duten diziplinarteko ekarpenak ongi etorriak izango dira. Bitarteko baketsu horiek barne har dezakete elkarrizketa prozesuen, negoziazioen, bake-akordioen, desberdinen arteko bizikidetzaren, giza eskubideen defentsaren, bakerako heziketa eta indarkeriarik gabeko beste metodo ugariaren ikerketa.

LT 4: Defentsa, Inteligentzia eta Ikerketa Estrategikoak. Koordinazioa: Iván González eta Nahia Sanzo Ruiz de Azua.

Lan-talde honek ongietorria ematen die diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenei, gai hauek aztertzen badituzte: gatazka perspektiban eta prospektiban, historia militarra, gerra konbentzionala eta gerra irregularra, teoria eta kultura estrategikoa (doktrinak, erakundeak...), defentsa-politika eta inteligentzia estrategikoa eta, teknologia, berrikuntza eta eraldaketa militarra.

LT 5: Komunikazioa eta hedapen geopolitikoa. Koordinazioa: Jon García eta Pablo García Varela.

Lan-talde hau nazioarteko harreman eta geopolitika gaiei buruzko dibulgazio eta komunikazioarekin harremana duen guztia jorratzeaz arduratuko da. Esparru honen barruan potentzia desberdinek lehia geopolitikoaren testuinguruan hedabide "zaharren" eta "berrien", sare sozialen eta propagandaren inguruan egiten duten erabilera aztertzea du xede.

LT 6: Afrika. Koordinazioa:

Lan-talde honetan, ongi etorriak izango dira Afrikako kontinentearen edo/eta bertako estaturen baten politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizartea, identitatea, kultura, hizkuntza eta historiari buruzko diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak.

LT 7: Anglosfera. Koordinazioa: Ander Aranburu Amenabarro.

Lan-talde honetan, angloesferaren barruan kokatzen ditugun bost herrialdeen politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizartea, identitatea, kultura, hizkuntza eta historia jorratzen dituzten diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak ongi etorriak izango dira. Angloesferaren barruan kokatzen ditugun bost herrialdeak honako hauek dira: Amerikako Estatu Batuak, Australia, Erresuma Batua, Kanada eta Zelanda Berria.

LT 8: Mendebaldeko Asia eta Ipar Afrika. Koordinazioa: Mar Gijón Mendigutía.

Lan-talde honetan, estatu arabiarren, Turkiaren, Israelen, Kaukaso eskualdearen eta Iranen inguruko politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizartea, identitatea, kultura, hizkuntza eta historia jorratzen dituzten diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak ongi etorriak izango dira.

LT 9: Asia-Pazifikoa. Koordinazioa: Borja Macías Urbano.

Lan-talde honi begira, erdialdeko, ekialdeko eta hegoaldeko Asiako eta Ozeaniako estatuen politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizartea, identitatea, kultura, hizkuntza eta historia jorratzen dituzten diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak ongi etorriak izango dira.

LT 10: Espazio postsobietarra. Koordinazioa: Asier Blas Mendoza.

Lan-talde honetan estatu postsobietarren inguruko politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizartea, identitatea, kultura, hizkuntza eta historia jorratzen dituzten diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak ongi etorriak izango dira.

LT 11: Europa. Koordinazioa: Jose Castillo Manteca.

Lan-talde honetan Europako kontinentearen eta estatuetako politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizartea, identitatea, kultura, hizkuntza, historia eta eskualdeko integrazio prozesuak jorratzen dituzten diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak ongi etorriak izango dira.

LT 12: Latinoamerika. Koordinazioa: Iratxe Perea Ozerin eta Itsasne Allende Sopelana.

Lan-talde honetan Latinoamerikako estatuen inguruko politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizartea, identitatea, kultura, hizkuntza eta historia jorratzen dituzten diziplina anitzeko edo diziplina arteko ekarpenak ongi etorriak izango dira.

EGUTEGIA

2024ko urtarrilak 22: ponentzietarako proposamenak aurkezteko deialdia irekiko da.

2024ko apirilak 29: ponentziak aurkezteko deialdia itxiko da.

2024ko maiatzak 6: onartutako proposamenak zein diren jakinaraziko da.

2024ko maiatzak 6: Izen-ematea prezio murriztuetan egiteko prozesua irekiko da.

2024ko uztailak 15: programan sartu nahi duten hizlarienezako izen-emate epea amaituko da. Izen-ematea prezio murriztuetan egiteko epea amaituko da.

2024ko uztailak 22: programa online argitaratuko da.

2024ko irailak 2: ponentzien azken testuak bidaltzeko epea amaituko da.

2024ko irailak 11, 12 eta 13: Kongresua ospatuko da Bilbon.



IZEN-EMATEA



Izen-emateko epea 2024ko maiatzaren 6an irekiko da

Izena emateko prezio murriztuak 2024ko maiatzaren 6tik uztailaren 15era:

Ikasleen izen-ematea (ez ditu barne hartzen doktoratu aurreko kontratua duten langileak):

20€

Langabetuen izen-ematea: 20€

Izen-emate arrunta: 40€

Online parte hartuko dutenen izen-ematea (hizlariantzat soilik): 15€

2024ko uztailaren 16tik kongresua egin bitartean izena emateko prezioak:

Ikasleen izen-ematea (ez ditu barne hartzen doktoratu aurreko kontratua duten langileak):

30€

Langabetuen izen-ematea: 30€

Izen-emate arrunta: 50€

Online parte hartuko dutenen izen-ematea (hizlariantzat soilik): 25€

Kongresuaren baitako ekitaldi soziala: Kongresuaren baitako ekitaldi sozialean egingo den bazkari/afarian parte hartu nahi izanez gero (formatua eta data zehazteke daude): gutxi gorabehera 20€

ANTOLAKETA BATZORDEA

Koordinatzailea: Asier Blas Mendoza

Kideak

Ander Aranburu Amenabarro

Borja Macias Urbano

Eneko Compains Silva

Iratxe Perez Ozerin

Irene Zugasti Hervás

Itsasne Allende Sopolana

Itziar Mujika Chao

Jon Kortazar Billelabeitia

Luis Miguel Uharte Pozas

Mar Gijón Mendigutía

Nahia Sanzo Ruiz de Azua

Pablo García Varela

HAUTAKETA BATZORDEA

Mahaiburutza: Dra. Itziar Mujika Chao (UPV/EHU)

Kideak

Dra. Arantxa Tirado Sánchez (UAB, Catalunya)

Dr. Asier Blas Mendoza (UPV/EHU)

Dr. Borja Macías Urbano (UPV/EHU)

Dr. Branislav Radeljic (UAEU, United Arab Emirates)

Dr. Eneko Compains Silva (UPV/EHU)

Dra. Iratxe Perea Ozerin (UPV/EHU)

Dr. Juan Agulló (UNILA, Brasil)

Dra. Laura Pérez Rastrilla (UCM, Madrid)

Dr. Luis Miguel Uharte Pozas (UPV/EHU)

Dra. Mar Gijón Mendigutía (UPV/EHU)

Dra. María José Rodríguez Rejas (UACM, México)

Dr. Martin Artola Korta (TSU, Georgia)

Dra. Mónica Bruckmann (UFRJ, Brasil)

Dr. Pablo Sapag Muñoz de la Peña (UCM, Madrid)

Dr. Rubén Ruiz Ramas (UNED, Aragón)

Dra. Silvina Romano (CONICET, Argentina)

KONTAKTUA

Web: <https://geink.eus/>

Ponentzia proposatzeko inprimakia: <https://kongresua.geink.eus/>

Email: info@geink.eus

X: <https://twitter.com/Geink>